

LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL



GIZARTE
ETA KULTURA
ZERBITZUAK

HAUR-HEZKUNTZA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

3. modulua: Haur Jolasa eta Bere Metodologia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**LANBIDE
HEZIKETAKO ZIKLOEN
PROGRAMAZIOA**

**PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL**



**GIZARTE ETA KULTURA
ZERBITZUAK**

HAUR-HEZKUNTZA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

3. modulua: Haur Jolasa eta Bere Metodologia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**
Lanbide Heziketako eta Etengabeko
Ikaskuntzako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Viceconsejería de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Argitaraldia: 1.a, 2009ko ekaina

Egilea: Agurtzane Mayayo Ontalvilla

Argitaratzailea eta koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta diagramazioa: TRESEDETRES

L.G.: BI-1756-09



Iraupena: 140 ordu
UDen kopurua: 6

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzea eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzea gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

AURKIBIDEA

UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	04. or.
0. unitate didaktikoa:	
0. Moduluen aurkezpena	05. or.
1. unitate didaktikoa:	
1. Hezkuntzako esku-hartzean eredu ludikoa testuinguruan jartzea eta kontzeptualizatzea	08. or.
2. unitate didaktikoa:	
2. Baliabide ludikoak eta/edo hezkuntzakoak aztertu, hautatu eta lantzea	13. or.
3. unitate didaktikoa:	
3. Haur Hezkuntzako ikastetxeko metodologia ludikoan oinarritutako hezkuntzako esku-hartzeak planifikatu eta abiaraztea	20. or.
4. unitate didaktikoa:	
4. Jarduera ludiko eskolaz kanpokoak, aisia eta denbora librekoak, eta haur-animaziokoak planifikatzea	26. or.
5. unitate didaktikoa:	
5. Bestelako eremu eta zerbitzu ludikoetan jarduera ludikoak planifikatzea	32. or.
6. unitate didaktikoa:	
6. Haurtzaroan esku hartzeko olgetako proiektu ludikoak planifikatzea: ludoteka bat sortzea	35. or.



Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK						UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4	M5	M6		
						UD0: Moduluaren aurkezpena	1 h
X						UD1: Hezkuntzako esku-hartzean eredu ludikoa testuinguruan jartzea eta kontzeptualizatzea	18 h
			X			UD2: Baliabide ludikoak eta/edo hezkuntzakoak aztertu, hautatu eta lantzea	31 h
		X	X	X	X	UD3: Haur Hezkuntzako ikastetxeko metodologia ludikoan oinarritutako hezkuntzako esku-hartzeak planifikatu eta abiaraztea	23 h
X	X	X	X	X	X	UD4: Jarduera ludiko eskolaz kanpokoak, aisia eta denbora librekoak, eta haur-animaziokoak planifikatzea	25 h
X	X	X			X	UD5: Bestelako eremu eta zerbitzu ludikoetan jarduera ludikoak planifikatzea	20 h
X	X		X	X	X	UD6: Haurtzaroan esku hartzeko olgetako proiektu ludikoak planifikatzea: ludoteka bat sortzea	22 h
GUZTIRA							140 h

1. multzoa: Hezkuntzako esku-hartzean eredu ludikoa zehaztea
2. multzoa: Haurtzaroan esku hartzeko olgetako proiektu ludikoak planifikatzea
3. multzoa: Jarduera ludikoak planifikatzea
4. multzoa: Baliabide ludikoak zehaztea
5. multzoa: Jarduera ludikoak abiaraztea
6. multzoa: Jarduera ludikoa ebaluatzea



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA		Iraupena: 1 ordu					
<p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Moduluen garapeneren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere. 2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea. 3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea. 4. Moduluen unitate didaktikoen arteko eta moduluen eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea. 5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. 							
EDUKIAK		Multzoak					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 						
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura. • Moduluen ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluen helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 						
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluen garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 						



JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
J1 Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.	1	10 m.	X	X	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturteetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.	
J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 m.	X	X	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	Arbela. Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa. Kronogramak Informazioa duten fotokopiak.	
J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 m.	X	X	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.	
J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa.	5	30 m.	X	X	Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuak jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuak jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitateara egokitzeak aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.	



OHARRAK

- Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.



1. unitate didaktikoa: HEZKUNTZAKO ESKU HARTZEAN EREDU LUDIKOA TESTUINGURUAN JARTZEA ETA KONTZEPTUALIZATZEA		Iraupena: 18 ordu					
<p><i>IE1: Hezkuntzako esku-hartzean eredu ludikoa testuinguruan kokatzen du, eta eredu hori jolasari buruzko teorien, haurren garapenean duen bilakaeraren eta garrantziaren, eta ardatz metodologiko gisa duen eginkizunaren bidez baloratu du.</i></p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> Haur-jolasaren ezaugarriak identifikatzea. Jolasak haurren garapenean duen bilakaera aztertzea. Jolasak haurren garapenean duen garrantzia aztertzea. Irakatsi eta ikasteko prozesuan alderdi ludikoak sartzearen garrantzia baloratzea. Jolasari buruzko teorien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzea. Jolasa haurren garapenean dimentsioekin lotzea. Jolasak integratioko, gizarte-egokitzapeneko, berdintasuneko eta bizikidetasuneko faktore gisa duen garrantzia antzematea. Haurren garapenean eta hezkuntzako esku-hartzearen ardatz metodologiko gisa jolasak duen garrantzia baloratzea. 							
EDUKIAK		Multzok					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Eredu ludikoaren teknikak eta baliabideak aztertzea. Jolasak haurren garapenean duen garrantziaz jabetzea. 	X					
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Jolasa eta haurren garapena. Jolasa eta dimentsio afektiboa, soziala, kognitiboa, sensoriala eta motorra. Jolasari buruzko teoriak. Mota eta klaseak. Jolasa eta eskola-ikaskuntza. Eredu ludikoa. Ezaugarriak. 	X					
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Argitaratzailea Hezkuntzako esku-hartzean jolasa baloratzea. 	X					



JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena. E0 Hasierako ebaluazioa.		1 h.	X		Irakasleak ahozko galderak egingo dizkie ikasle guztiei; ideia-zaparrada antolatuko du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik; eta inkesta bat egingo du unitatea amaitzean.	Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itxaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko. Ikasleek unitate didaktikoan ikasiko dutena eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da, horrela ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Aldez aurretik egindako inkesta.	
J1 Jolasari buruzko oinarrizko kontzeptuen inguruko azalpena: <ul style="list-style-type: none"> • Izaera. • Definizioa. • Ezaugarriak. • Sailkapena. • Motak. 	1, 9	1 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du jolasari buruzko oinarrizko kontzeptuen inguruan.	Ikasleek jolasari buruz aipatutako oinarrizko kontzeptuen inguruko hainbat gai ezagutu ditzaten.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.	
J2 Ikasleen praktika autonomia: norberaren definizioa lantzea.	1, 8	0,5 h.		X	Ikasle bakoitzak, ikasgelan jolasari buruz ikusitako definizioetatik eta jolasaren ezaugarrietatik abiatuta, bere definizioa landu beharko du.	Dauden definizioen inguruan gogoeta egiteko, horien guztien elementu komunak ateratzeko eta norberaren definizioa lantzeko.	Ikasgelako berezko baliabideak.	
J3 Azalpena: haur-jolasa historian zehar.	2	1 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du haur-jolasari buruz historian zehar.	Ikasleei historian zehar haur-jolasaren inguruko hainbat gai jakinarazteko.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.	
J4 Ikasleen praktika autonomia:	2	0,5 h.		X	Ikasle bakoitzak gogoeta pertsonala egin beharko du jolasak	Jolasari buruzko teoriaren arteko	Ikasgelako berezko	



jolasaren bilakaera historikoari buruzko gogoeta.					historian zehar izan duen bilakaeraren eta haren ikusmoldean izandako aldaketen inguruan, pentsamolde horrek egungo pedagogian nola eragin duen ikusi ahal izateko.	antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzeko. Jolasak umeen bizitzan zein eginkizun duen ulertzeko. Jolasa dimentsio afektiboekin, sozialekin eta kognitiboekin lotzeko. Hautzaroan ohikoenak diren jolasen esanahia horiek garatzen dituzten gaitasunekin lotzeko. Haur-jolasean inplikatzuz gero, teknikariak bete dezakeen eginkizuna identifikatzeko.	baliabideak.
J5 XIX. mendeko jolasari buruzko ikusmolde teorikoen inguruko azalpena: <ul style="list-style-type: none"> Energiaren kontsumoarekin lotutako teoriak. Laburbilketaren teoria. Aurreariketaren teoria. 	2, 5	1 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du XIX. mendeko jolasari buruzko ikusmolde teorikoen inguruan.	Ikasleei jakitera emateko XIX. mendeko jolasari buruzko ikusmolde teorikoekin lotutako hainbat gai.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.
J6 Ikasleen praktika autonomia: taula bat egitea J5 jardueraren inguruan: <ul style="list-style-type: none"> Energiaren kontsumoarekin lotutako teoriak. Laburbilketaren teoria. Aurreariketaren teoria. 	2, 5	0,5 h.		X	Ikasle bakoitzak sarrera bikoitzeko taula bana egin beharko du. Bertan, teoriaren egilea eta urtea, eta garatzen duen oinarriko ideia jaso beharko ditu.	Ikasleei jakitera emateko XIX. mendeko jolasari buruzko ikusmolde teorikoekin lotutako hainbat gai.	Testuliburua. Ikasgelako berezko baliabideak.
J7 XX. mendeko jolasari buruzko ikusmolde teorikoen inguruko azalpena: <ul style="list-style-type: none"> Jolasari buruzko teoria orokorra. 	2, 5	4 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du XX. mendeko jolasari buruzko ikusmolde teorikoen inguruan.	Ikasleek ezagutzeko (edo ulertzeko) XX. mendeko jolasari buruzko ikusmolde teorikoekin lotutako hainbat gai.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.



<ul style="list-style-type: none"> • Fikzioaren teoria. • Freud-en teoria. • Piaget-en teoria. • Vigotsky-ren teoria. • Bestelakoak. 							
J8 Ikasleen taldeko praktika: jolasaren inguruko azterketa teorikoan garrantzitsuenak diren teoretan sakontzea.	2, 5	4 h.	X	X	Ikasleek, taldetan banatuta, esleitu zaien egileari eta haren teoriari buruzko informazioa bilatu beharko du (talde bakoitzari egile bana egokituko zaion eta guztien inguruan sakondu ahal izango den moduan egingo da banaketa).	Jolasari buruzko teoriaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzeko. Jolasak umeen bizitzan zein eginkizun duen azaldu eta ulertzeko. Jolasa dimentsio afektiboekin, sozialekin eta kognitiboekin lotzeko. Haurtzaroen ohikoenak diren jolasen esanahia horiek garatzen dituzten gaitasunekin lotzeko. Haur-jolasean inplikatur gero, teknikariak bete dezakeen eginkizuna identifikatzeko.	Liburutegiak. Internet. Aldizkari espezializatuak.
J9 Azalpena, jolasak haurren garapenean duen garrantzia buruzkoa.	3, 4, 6	0,5 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du jolasak haurren garapenean duen garrantziari buruz.	Ikasleek ezagutzeko eta ulertzeko jolasak haurren garapenean duen garrantziarekin lotutako hainbat gai.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.
J10 Taldeko praktika: J9 jarduerari buruzko eztabaida.	3, 4, 6	0,5 h.	X	X	Ikasleek, talde handian, Haur Hezkuntzan jolasak duen garrantziari buruzko eztabaida egingo dute. Irakasleak moderatuko du eztabaida eta, horrez gain, galderak egingo ditu eta parte-hartzea sustatuko du.	Ikasleak jabetu daitezten jolasak haurren garapenean duen garrantziarekin lotutako hainbat gaitaz.	Ikasgelako berezko baliabideak.
J11 Jolasari eta haurren garapenearen esparruei buruzko azalpena: <ul style="list-style-type: none"> • Esparru psikomotorra. • Esparru kognitiboa. • Esparru afektiboa. 	4, 6, 7, 8	2 h.			Irakasleak talde magistrala emango du, jolasari eta haurren garapenearen esparruei buruz.	Ikasleek ezagutzeko eta ulertzeko jolasarekin eta haurren garapenearen esparruekin lotutako hainbat gai.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.



• Esparru soziala.							
J12. Ikasleen praktika autonomoa: taula bat egitea J11 jardueraren inguruan.	4, 6, 7, 8	0,5 h.		X	Ikasle bakoitzak sarrera bikoitzeko taula bana egin beharko du. Bertan, alde batetik, jolas mota eta, bestetik, horrek sustatzen duen garapen-esparrua ipiniko du.	Ikasleei jolasari eta haurren garapenaren esparruei buruzko hainbat gai jakinarazteko: <ul style="list-style-type: none"> • Esparru psikomotorra. • Esparru kognitiboa. • Esparru afektiboa. • Esparru soziala. 	Testuliburua. Ikasgelako berezko baliabideak.
E1 Azken ebaluazioa. Idatzizko proba bat ebaztea.		1 h.		X	Ikasleek landutako gaiaren inguruko kontzepturik garrantzitsuenen galdera sorta bat erantzungo dute banaka.	Unitate didaktikoan ikasle bakoitzak bereganatutako ezagupenak erakusteko.	Azterketa.

OHARRAK

- Ikaskuntza-jarduera gehienak ikasgelan bertan egiteko modua bilatu da; hala ere, denboralizazioan aurreikusitakoa baino denbora gehiago beharko dute ikasleek zenbait jarduera amaitu ahal izateko.
- Ikaskuntza-jardueretan eta ebaluazioa egitean landu dituen materialak emango dizkio ikasleak irakasleari, berak zuzentzeko eta baloratzeko. Ikasleek lan egiten duten bitartean, irakasleak ikasleen jokaera behatuko du eta datuak jasoko ditu, ondorengo ebaluaziorako eta, hala badagokio, kalifikaziorako erabilgarriak izango dituen adierazleen arabera.



2. unitate didaktikoa: BALIABIDE LUDIKOAK ETA/EDO HEZKUNTZAKOAK AZTERTU, HAUTATU ETA LANTZEA

Iraupena: 31 ordu

IE4: Jarduera ludikoetarako jostailuak hautatzen ditu, eta horien ezaugarriak haurren garapenaren etapekin lotzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Jostailu motak, horien ezaugarriak, eginkizuna eta haurren eboluzio-prozesuan zein gaitasun garatzen laguntzen duten aztertzea.
2. Adinari egokitutako haur-jostailuen txostena egitea.
3. Espazio itxi eta irekietarako jostailuak, adinari egokitutakoak, identifikatzea.
4. Jostailuak zerrendatu eta sailkatzea, irizpide hauek kontuan izanda: adina, zein espaziotan erabiltzekoak diren, hezitzailearen rola, parte-hartzaileen kopurua, garatzen dituzten gaitasunak, ezartzen diren loturak eta beharrezko materialak.
5. Material ludikoak antolatu, erabili eta zaintzeko irizpideak ezartzea.
6. Jostailuen erabilerari eta segurtasunari buruz indarrean dagoen legeria aztertzea.
7. Haur-jostailuak segurtasun-baldintzetara egokitzearen beharra antzematea.

EDUKIAK		Murtzoak					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Jostailuen sailkapena. • Hainbat espaziotarako jostailuak hautatzea. • Materialak eta jostailuak antolatu, erabili eta zaintzea. • Jostailuei buruz indarrean dagoen legeria: segurtasun- eta kalitate-arauak identifikatu eta interpretatzea. 				X X X X		
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Jostailuaren eginkizunak. • Baliabideak eta materialak antolatzea. • Baliabide ludikoa sortu eta berritzea. • Komunikabideen eta teknologia berrien eragina haur-jostailuetan. • Gizarte-rolen eragina jostailuetan. 				X X X X X		
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Sormena eta jostailuak. 				X		



JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena. E0 Hasierako ebaluazioa.		1 h.	X		Irakasleak ahozko galderak egingo dizkie ikasle guztiei; ideia-zaparrada antolatuko du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik; eta inkesta bat egingo du unitatea amaitzean.	Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itxaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko. Ikasleek unitate didaktikoan ikasiko dutena eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da, horrela ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Aldez aurretik egindako inkesta. Arbela. Klarionak.	
J1 Ikasleen taldeko praktika: jostailuaren kontzeptuari buruzko ideia-zaparrada.	1	0,5 h.		X	Ikasleek euren ustez jostailuen berezko ezaugarriak zein diren pentsatu eta horiek ozenki esan beharko dituzte. Irakasleak ikasleen ideia guztiak arbelean idatziko ditu, eta taldeari pentsatzen jarraitzeko esango dio.	Jostailuaren kontzeptua definitzen duten elementuei buruz gogoeta egiteko.	Ikasgelako berezko baliabideak.	
J2 Azalpena, jostailuaren kontzeptuari buruzkoa.	1	0,5 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du jostailuaren kontzeptuari buruz.	Ikasleei jostailuaren kontzeptuarekin lotutako gaiak jakinarazteko.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.	
J3 Ikasleen praktika autonomoa: norberaren definizioa lantzea.	1	0,5 h.		X	Ikasle bakoitzak, ikasgelan jolasari buruz ikusitako definizioetatik eta jostailuaren ezaugarrietatik abiatuta, bere definizioa landu beharko du.	Dauden definizioen inguruan gogoeta egiteko, horien guztien elementu komunak ateratzeko eta norberaren definizioa lantzeko.	Ikasgelako berezko baliabideak.	
J4 Ikasleen praktika autonomoa: jostailuen zerrenda bat egitea.	2	0,5 h.		X	Ikasle bakoitzak jostailuen zerrenda bana egin beharko du.	Jostailuaren kontzeptuaren barruan sartzen diren materialei buruz gogoeta egiteko.	Ikasgelako berezko baliabideak.	



J5 Ikasleen praktika autonomoa: J4 jarduerari buruzko azterketa.	1	0,5 h.		X	Talde handian, jostailuen zerrenda bat egingo dugu, aurretiaz ikasle bakoitzak bere kasa landutako zerrendatik abiatuta. Ondoren, zenbait egileren definizioetan oinarrituta, jostailu gisa zerrendatu ditugun objektuetatik jostailutzat zein har ditzakegun eta zein ez erabakiko dugu.	Zenbait egilek jostailuaren kontzeptuarekin lotuta eman dituzten definizioen inguruan gogoeta egiteko. Termino baten inguruan ikusmolde bat baino gehiago dagoela jakiteko. Definizio bati edo besteari atxikitako elementuak identifikatzeko.	Ikasgelako berezko baliabideak.
J6 Azalpena, historian zehar jostailuak izan duen bilakaerari buruzkoa.	1	1 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du historian zehar jostailuak izan duen bilakaerari buruz.	Ikasleek ezagutu eta uler ditzaten historian zehar jostailuak izan duen bilakaerarekin lotutako hainbat gai.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.
J7 Ikasleen taldeko praktika: jostailuak bildu edo fabrikatzea eta sailkatzea, izan duten bilakaera historikoaren arabera: <ul style="list-style-type: none"> Norberak fabrikatutako jostailuak. Artisau moduan eta eskuz egindako jostailuak. Industria-fabrikazioko jostailuak. 	1	2 h.		X	Ikasleek, taldetan banatuta, jostailuak bildu eta landu, eta izan duten bilakaera historikoaren arabera sailkatu beharko dituzte.	Topa ditzakegun jostailuen jatorria identifikatzen ikasteko.	Zenbait jostailu mota.
J8 Azalpena, jostailuen kalitateari eta segurtasunari buruzkoa: <ul style="list-style-type: none"> Kalitate-irizpideak. Lege-esparrua. Jostailuen segurtasuna bermatzen duten erakundeak. 	6, 7	1,5 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du jostailuen kalitateari eta segurtasunari buruz.	Ikasleei jostailuen kalitateari eta segurtasunari buruzko hainbat gai jakinarazteko.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.
J9 Ikasleen taldeko praktika:	6, 7	1,5 h.		X	Ikasle talde bakoitzak jostailuen kalitateari eta segurtasunari	Irakatsi eta ikasteko prozesuan	Ikasgelako berezko



jostailuen kalitateari eta segurtasunari buruzko gida bat egitea.					buruzko irizpideekin lotutako informazioa bilatu beharko du. Gainera, familiei zuzendutako kontsulta-gida bat egingo du. Bertan, modu atsegin eta didaktikoan, lortutako informazioaren alderdi garrantzitsuenak (material ludikoak erosteko garaian kontuan hartu beharrekoak) azalduko ditu.	parte hartzen duten kolektiboei zuzendutako informazio-materialak prestatzeko, eta jostailuen segurtasuna eta kalitatea ziurtatzearen kontuan hartu beharreko irizpideen inguruan orientatzeko.	baliabideak.
J10 Azalpena, jostailuak sailkatzeko irizpideei buruzkoa: <ul style="list-style-type: none"> ESAR sailkapen metodoa. Sustatutako arloaren araberako sailkapena. Hezkuntza-curriculumaren araberako sailkapena. 	4	2 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du jostailuak sailkatzeko irizpideei buruz.	Ikasleek ezagutzeko eta ulertzeko jostailuak sailkatzeko irizpideekin lotutako hainbat gai.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.
J11 Ikasleen taldeko praktika: jostailu motak sailkatzea.	4	1,5 h.		X	Ikasleek, taldetan banatuta, zenbait jostailuak sailkatu beharko ditu. Horretarako, jostailu-dendetan aurki ditzakegun merkataritza-katalogoak erabiliko dituzte. Talde bakoitzak ESAR sailkapen-metodoa aztertu eta horren inguruan gogoeta egin beharko du. Horretarako, sailkapen horren arabera, garapen-esparru bakoitzera egokitutako irudiak eta argazkiak ebaki eta itsatsiko ditu.	Sailkapen-irizpideak erabiltzen ikasteko, ezarritako helburuen eta eskura ditugun baliabide teknikoiei eman nahi diegun funtzionaltasunaren arabera.	Ikasgelako berezko baliabideak. Merkataritza-aldizkariak.
J12 Azalpena, kontsumo-iturri gisa jostailuei buruzkoa: <ul style="list-style-type: none"> Jostailuen akatsa eta horren ondorioak. Jostailu gehiegi izatea eta horren ondorioak. Birziklatutako jostailua. 	1	1 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du kontsumo-iturri gisa jostailuei buruz.	Ikasleei kontsumo iturri gisa jostailuekin lotutako hainbat gai jakinarazteko.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.
J13 Ikasleen taldeko praktika: J12	1	2 h.		X	Talde bakoitzak idatziz gidoi bat prestatu beharko du,	Informazio-materialak prestatzeko	Ikasgelako berezko



jardueraren lehen bi puntuen inguruan, familiarentzat informazio-solasaldi bat prestatzea.					gainerako gelakideen aurrean familiarentzako informazio-solasaldi baten simulazioa egiteko. Bertan, jostailu gehiegi nahiz gutxiegi izateak ekar ditzakeen ondorioak eta kontsumo arduratsua egitearen garrantzia jorratuko ditu.	eta etorkizuneko rol profesionalaren eginkizunekin ohitzeko.	baliabideak.
J14 Ikasleen taldeko praktika: birziklatutako jostailuen lantegi bat planifikatu eta abiaraztea.	1, 3, 5, 6, 7	4 h.		X	Ikasleek, taldetan banatuta, lantegi bat programatu beharko dute. Lantegi horretan, haurrak berorren jostailuak egiten ikasi behar du, eguneroko materialekin edo hondakin-materialekin, hala nola: kartoia, brikak, botilen tapoiak, arrautza-ontziak, botoiak...	Baliabide ludikoak prestatu eta hautatzeko, kontuan izanik: <ul style="list-style-type: none"> • Erabiliko diren materialak. • Eginkizunak. • Hauren ezaugarriak. 	Eguneroko materialak edo hondakin-materialak. Ikasgelako berezko baliabideak.
J15 Azalpena, komunikabideei eta jostailuaren publizitateari buruzkoa: <ul style="list-style-type: none"> • Jostailuak publizitatean. • Adingabeen babesa publizitatearen aurrean. • Familia eta hezitzaileak publizitatearen eta komunikabideen aurrean. 	1	1 h.	X	Irakasleak klase magistrala emango du komunikabideei eta jostailuaren publizitateari buruz.	Ikasleek ezagutzeko eta ulertzeko komunikabideekin eta jostailuaren publizitatearekin lotutako hainbat gai.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.	
J16 Ikasleen taldeko praktika: jostailuen publizitate-kanpaina bat aztertzea.	1	1 h.		X	Ikasleek, taldetan banatuta, telebistan jostailuari egiten zaion publizitatearen eraginari buruzko azterlan bat egin beharko lukete. Horretarako, hiru telebista-kate behatu beharko dira hiru egunez eta ordu-tarte berean, iragarki kopuruari, jostailu motari eta zuzenduta dauden adinari arreta berezia jarrita. Horretarako, erregistro-taula bat egin beharko dute, lortutako datuak aztertu dituzte eta azken emaitzekin txosten bat idatziko dute.	Jostailuak eta materialak aztertzeko, kontuan izanik: <ul style="list-style-type: none"> • Jostailuaren berezko ezaugarriak: kalitatea, segurtasun- eta higiene-arauak, eta hezkuntza-balioak. • Adinaren ezaugarriekiko egokitzapena. • Zein gaitasun garatzen dituen. 	Telebista. Ikasgelako berezko baliabideak.
J17 Azalpena, gerra-jostailuei eta indarkeriari buruzkoa.	1	1 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du gerra-jostailuei eta indarkeriari buruz.	Ikasleei gerra-jostailuei eta indarkeriari buruzko hainbat gai jakinarazteko.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.



J18 Ikasleen taldeko praktika: J17 eta J19 jarduerekin lotuta kontzientziazio-kanpaina bat prestatzea.	1	2 h.		X	Ikasleek, taldetan banatuta, bi kontzientziazio-kanpaina egin beharko dituzte: bata gerra-jostailuei eta biolentziari buruzkoa; eta bestea gizarte-erolek jostailuetan duten eraginari buruzkoa (genero-rolen asaldura eta jostailu sexistak). Horretarako, kanpaina markatuko duten goiburuak pentsatu beharko dituzte, eta kontzientziazioko informazio-kanpaina gauzatu ahal izateko erabilgarriak izango dituzten hainbat material prestatu: horma-irudiak, triptikoak, irati-iragarkiak, bestelako iragarkiak...	Haurren jolas-materialak behar bezala aukeratzearen garrantziari buruz gogoeta egiteko. Haurren hezkuntzan garrantzitsuak diren alderdiak hedatzeko materialak lantzen ikas dezaten. Etorkizunean izango diren hezitzaile gisa, sustapenaren eta prebentzioaren arloetako eginkizunez jabetu daitezten.	Ikasgelako berezko baliabideak. Grabagailua. Bideokamera. Ordenagailua. Kartoi meheak.
J19 Gizarte-erolek jostailuetan duten eraginari buruzko azalpena: <ul style="list-style-type: none"> Jostailu sexistak. Genero-rolen asaldura. 	1	1 h.	X	Irakasleak klase magistrala emango du gizarte-erolek jostailuetan duten eraginari buruz.	Ikasleek ezagutzeko eta ulertzeko gizarte-erolek jostailuetan duten eraginarekin lotutako hainbat gai.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.	
J20 Azalpena, baliabide ludikoei eta hezkuntza-behar bereziei buruz.	1	2 h.	X	Irakasleak klase magistrala emango du baliabide ludikoei eta hezkuntza-behar bereziei buruz.	Ikasleek ezagutzeko eta ulertzeko baliabide ludikoei eta hezkuntza-behar bereziekin lotutako hainbat gai.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.	
J21 Ikasleen taldeko praktika: jostailu egokituak egitea.	1, 5	2 h.		X	Gela taldetan banatuko dugu. Talde bakoitzak minusbaliotasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala dutenentzat egokitutako jostailuak egin beharko ditu.	Euren baliabide ludikoak prestatzen ikas dezaten, kontuan izanik aniztasuna eta ikasle bakoitzaren ezaugarrietara materiala egokitzeko beharrezkoak diren egokitzapenak.	Hainbat material.
E1 Azken ebaluazioa. Idatzizko proba bat ebatzea.		1 h.		X	Ikasleek landutako gaiaren inguruko kontzepturik garrantzitsuenei buruzko galdera sorta bat erantzungo dute banaka.	Unitate didaktikoan bereganatutako ezagupenak erakusteko.	Azterketa.



OHARRAK

- Ikaskuntza-jarduera gehienak ikasgelan bertan egiteko modua bilatu da; hala ere, denboralizazioan aurreikusitakoa baino denbora gehiago beharko dute ikasleek zenbait jarduera amaitu ahal izateko.
- Ikaskuntza-jardueretan eta ebaluazioa egitean landu dituen materialak emango dizkio ikasleak irakasleari, berak zuzentzeko eta baloratzeko. Ikasleek lan egiten duten bitartean, irakasleak ikasleen jokaera behatuko du, datuak jasoko ditu eta ondorengo ebaluazioa egiteko erabiliko ditu.



3. unitate didaktikoa: HAUR HEZKUNTZAKO IKASTETXEKO METODOLOGIA LUDIKOAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZAKO ESKU HARTZEAK PLANIFIKATU ETA ABIARAZTEA

Iraupena: 23 ordu

IE3: Jarduera ludikoak diseinatzen ditu, eta horiek jolasari buruzko teoriekin eta haurren eboluzio-unearekin lotzen ditu.

IE4: Jarduera ludikoetarako jostailuak hautatzen ditu, eta horien ezaugarriak haurren garapenaren etapekin lotzen ditu.

IE5: Jarduera ludikoak abiarazten ditu, eta horiek ezarritako helburuekin eta beharrezko baliabideekin lotzen ditu.

IE6: Esku-hartze ludikorako proiektuak eta jarduerak ebaluatzen ditu, eta hautatutako behaketa-teknikak eta -tresnak justifikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Haur Hezkuntzaren metodologiak oinarri duen lege-esparrua ezagutu eta aztertzea.
2. Jardueren eta horiek abiarazteko ezarritako helburuen arteko egokitzapena kontuan hartzea.
3. Jarduera ludikoak garatzeko aniztasunaren beharra justifikatzea.
4. Espazioak, baliabideak eta materialak antolatzea, eta hartzaileen eboluzio-ezaugarrietara egokitzea, haien adinaren eta aurreikusitako helburuen arabera.
5. Jardueren denbora-banaketa ezartzea, hartzaileen adinaren arabera.
6. Olgetako jarduera ludikoak denboraren plangintzara egokituta egitea.
7. Ingurune seguruak sortzearen garrantzia baloratzea.
8. Jarduera ludikoak diseinatzean, haurren eboluzio-unea kontuan hartzea.
9. Jarduera ludikoak zerrendatu eta sailkatzea, besteak beste, irizpide hauek kontuan izanda: adina, espazioak, teknikariaren rola, parte-hartzaileen kopurua, garatzen dituzten gaitasunak, ezartzen diren loturak eta beharrezko materialak.
10. Olgetako jarduera ludikoak programatzean, haurren ezaugarriak eta garapen-maila kontuan hartzea.
11. Jolas tradizionalak bildu eta adinarekin lotzea.
12. Jarduera ludikoak planifikatzeko elementuak aztertzea.
13. Haurtzaroan ohikoenak diren jolasen esanahia horiek garatzen dituzten gaitasunekin lotzea.
14. Jarduera ludikoa ebaluatzeko beharrezko baldintzak eta metodoak identifikatzea.
15. Ebaluazio-adierazleak hautatzea.
16. Ebaluazio-teknikak eta -tresnak aplikatzea egoera ludiko bakoitzean, besteak beste, irizpide hauek kontuan hartuta: fidagarritasuna, baliagarritasuna, erabilgarritasuna eta praktikotasuna informazioaren erabiltzaileentzat.
17. Erregistroaren xedea kontuan izanda, teknika egokia hautatu eta aplikatzea.
18. Teknologia berriak informazio-iturri gisa baloratzea.
19. Profesionalaren jarrera esku-hartze motarekiko baloratzea.



EDUKIAK					Multzoak							
					1	2	3	4	5	6		
PROZEDURAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> Jolasa hezkuntza-baliabide gisa justifikatzea. Jolasen sailkapena: motak eta xedea. Jolas tradizionalak eta egungoak biltzea. Espazio itxi eta irekietarako jolasak hautatzea. Programazioa jarduera ludikoei aplikatzea. Material ludikoak eta jostailuak. Prestaketa. Egoera ludikoak bultzatzeko estrategiak aztertzea. Hainbat espaziotarako jostailuak hautatzea. 					X					
KONTZEPTUZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> Hartzaileak aztertzeko prozesua. Jarduera ludikoak planifikatzeko elementuak. Eskolako eta eskolaz kanpoko jolasetan erabiltzen diren material eta baliabide ludikoak. Komunikabideen eta teknologia berrien eragina haurren jolasetan eta jostailuetan. Gizarte-rolen eragina jolasetan. Jolasetik abiatuta berdintasuna sustatzea. Hezitzailearen esku-hartzea haur-jolasean. Jarduera ludiko eskolakoak, eskolaz kanpokoak, aisia eta denbora librekoak, eta haur-animaziokoak. Antolamenduari eta legeriari buruzko alderdiak. 					X					
JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> Integratzaile eta bizikidetasunerako baliabide gisa jolasa baloratzea. Hurtzaroan jolasa behatzeren garrantzia baloratzea. Autoebaluaziorako alde aurreko jarrera. 								X		
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK				
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota		Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den		ZERTARAKO egingo den		ZEREKIN egingo den		
J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena. E0. Hasierako ebaluazioa.			1h.	X		Irakasleak ahozko galderak egingo dizkie ikasle guztiei; ideia-zaparrada antolatuko du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik; eta inkesta bat egingo du unitatea amaitzean.	Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itxaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko. Ikasleek unitate didaktikoan ikasiko	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Aldez aurretik egindako inkesta. Arbela.				



						dutena eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da, horrela ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko.	Klarionak.
J1 Azalpena, hezkuntzako esku-hartzearen metodologia gisa jolasari buruzkoa.	1	1 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du hezkuntzako esku-hartzearen metodologia gisa jolasari buruz.	Ikasleei hezkuntzako esku-hartzearen metodologia gisa jolasarekin lotutako hainbat gai jakinarazteko.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.
J2-E1 Ikasleen taldeko praktika: Familientzako txosten bat prestatzea.	1	1 h.			Ikasleek, taldetan banatuta, familiei zuzendutako txosten bat prestatu beharko du. Horretan, haurtzaroan erabiliko den metodologiak zein oinarri dituen jakinaraziko diete.	Hezkuntza-metodologia gisa jolasean oinarritzeak dituen inplikazioen inguruan gogoeta egiteko. Metodologia ludikoaren atzean zer dagoen eta haren arrazoia zein den jakiteko.	Ikasgelako berezko baliabideak.
